

Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina hil da

1988an euskaltzain oso izendatu zuten eta 2006an euskaltzain emeritu. Irudia handitu

Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina hil zen atzo, 80 urte zituela. Dokumentalista eta bibliografo gisa lan handia egin zuenez, euskaltzain oso izendatu zuten 1988an eta euskaltzain emeritu, 2006an.

Gernika-Lumon jaio zen 1931n. Ikasketak Gernikako ikastolan hasi ostean, Frantzian, erbestean, jarraitu behar izan zituen. 1942an Humanitateak ikasten hasi zen, eta Batxilergoa amaitu zuen ondoren, Valladoliden. Deustuko Unibertsitatera abiatu zen jarraian Zuzenbide ikasketak egitera, Andres Mañarikuaren gomendioz. Valladoliden lizentziatu zen, eta gerora, Bilboko Ekonomia Fakultatean Ekonomia ikasketak egitea erabaki zuen.

Hainbat lanpostu izan ostean, 1978an Euskaltzaindiak kontratatu zuen Azkue Liburutegiko liburutegia eta arduradun izateko. Urtebete geroago, Akademiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Euskaltzain oso, berriz, 1988ko urriaren 28an aukeratu zuten, Juan Gorostiagaren ordeiz. Sarrera hitzaldia Gernikan egin zuen, 1989ko uztailaren 28an, 'Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat' gaia hartuta. Aita Villasantek erantzun zion.

Euskaltzaindiaren baitan, Zuzendaritzako kide izan zen, bibliotekaria izateaz gain, eta Azkue Liburutegiko batzordeburua. Diruzaina ere izan zen, 1988tik 2003ra arte, eta Argitalpen batzordeko kide ere bai. 2006ko uztailaren 20an, euskaltzain emeritu izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Sari eta omenaldi ugari jaso zituen bere ibilbidean zehar. 1998an Euskal Idazleen Elkarteak omendu zuen, 2004an Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma eman zion, 2010ean Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria eman zioten, 2007an Gernikako Udal Liburutegiak Arana Martija izena jaso zuen eta 2010eko martxoaren 13an Gernika-Lumoko Udalak eta herriko hainbat kultur elkarteek omenaldia egin zioten.

Ikerketa-lan eta artikulu ugari argitaratu zituen, euskarari, euskal musikari eta euskal kulturari lotutakoak, besteak beste, honakoak: Antonio Tovar euskalariaren oroipena (1993); Louis-Lucien Bonaparte. Visión lingüística de Europa en el siglo XIX (1996); Aranzazu y la historia musical del País Vasco (1968); El Padre Madina, músico vasco y universal (1972); La música del Barroco al Romanticismo (1989); Karmelo Etxegarai, idazle Gernikan (1975); R.M. Azkue: Herri Jakintzatik euskara modernora (1999); eta abar.